

## 2003KO IRAILAREN 25EAN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeita bosta

**HILABETEA:** Iraila

**URTEA:** Bi mila eta hiru

**HASIERAKO ORDUA:** Eguerdiko hamabiak eta erdi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Pello Garaialde Goikoetxea

Imanol Aranburu Gutierrez

Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga

Arantxa Aseginolaza Azkargorta

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2003ko uztailaren 9ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- ARAU SUBSIDIARIOAK.** Arau Subsidiarioen berrikuspena esleitzea.

Ezagutzera eman da 2003ko irailaren 16ko Kontratazio-mahaiaren akta, Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuspen eta egokitze lanak esleitzeari buruzkoa.

2003ko apirilaren 3an, Gobernu Batzordeak, Beasaingo Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrikuspen eta egokitze lanak kontratatzeko deialdia egitea erabaki zuen, baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartuz. Lizitazioa prezioa, 206.959,43 €tan finkatu zen. Deialdia 2003ko apirilaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean, lau talde aurkeztu ziren.

2003ko irailaren 16an Kontratazio-mahaiak egindako proposamenaren arabera, lizitatzailleek lortutako puntuazioa ondorengoa da:

- S. Andres estudio de arquitectura ingeniería, diseño y urbanismo, S.L.: **37,8 puntu.**
- Arkitalde: **53 puntu.**
- Ana Crespo Amado – Pedro Etxaniz Rebaque: **56,1 puntu.**
- Toledo Taldea, S.L.: **71,6 puntu.**

Horren ondorioz, Gobernu Batzordearen kideak aho batez ondorengo erabakia hartu dute: Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuspen eta egokitze lanak TOLEDO TALDEA S.L.ri esleitzea 196.611,46 €tan, baldintza administratibo, tekniko eta enpresa berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

**3.- LUDOTEKA.** Berritsu ludoteka eta Ezkiagako ludoteka zerbitzua esleitzea.

Ezagutzera eman da, 2003ko irailaren 5ean, euskara batzordearen eta kultura batzordearen proposamena, berritsu ludotekaren eta Ezkiagako auzo-etxeko ludotekaren esleipena 2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteei buruzkoa.

2003ko uztailaren 9an, Gobernu Batzordeak "Berritsu ludoteka" eta "Ezkiagako ludoteka" zerbitzua kontratatzeko deialdia egitea erabaki zuen, baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartuz. Lizitazio prezioa, 112.800 €tan finkatu zen. Deialdia 2003ko uztailaren 23an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean, bakarrik PUXTARRI AISIALDI TALDEA aurkeztu zen.

Horren ondorioz, bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

PUXTARRI AISIALDI TALDEAri, berritsu ludoteka eta Ezkiagako auzo-etxeko ludoteka zerbitzua 2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetarako esleitzea. Esleipena gehienera ere **110.500 €**koa izango da (ikasturte eta ludoteka bakoitzeko, 27.625 €), kontutan izanik, ikasturte bakoitzean 1.800 zerbitzu eta prestakuntza-ordu sartuko direla. Ordu gutxiago sartuko balira, azken prezioa ere proportzioan jaitسي egingo litzateke.

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

##### **GURUTZE GORRIKO ORDEZKARITZA**

Patxi Plazaola Alkate jaunak adierazi du, Gurutze Gorriko ordezkari, gizarte-ongizate batzordeak eramango duela.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, eguerdiko ordubetetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.